actuales (Iratzeder, Mirande, Gandiaga, Aresti)'' hitzaldia (*Euskera*, 1963-1964). Eta abar.

Ageriko lan hoietaz kanpora, ordea, distirarik ez duten lan ixil, izkutu baina guztiz beharrezkoetan zutabe sendo eta leiala izan du beti Euskaltzaindiak Arrue jaunagan; esate baterako, jestioak egiteko orduetan.

1964. urtean *Gero*-ren edizioa euskeraz eta erderaz argitaratzeko Barcelona-ko Juan Flors-ek jarri zizkigun baldinkizunak beteko baziren diru mordoa behar zen —Euskaltzaindiak ez zuena—, eta Arrue jaunaren jestioei esker eskuratu zen.

Lege gizon zen aldetik, Euskaltzaindiaren Arautegia berriztatze lanean gogotik lagundu zuen. Eta are gehiago oraindik, Euskaltzaindiaren nortasuna Gobernuak aitor zezan. Guzti horrengatik Euskaltzaindiak sekulako zorra du berarekin.

Lagunduko ahal digu orain ere zerutik! Halabiz.

Fr. L. Villasante

XALBADOR

Euskaltzaindiak doluminak eta zorionak har bitza aldi berean Xalbador dela-ta,. Doluminak, nola ez, euskarak galdu baitu beraren erabiltzailerik hoberenetako bat, hitzaren egiazko artista bat, nehor guttik bezala eleeder paregabea egin duen bat. Noizko ote dauka ordaina gure Jainkoak?

Har bitza, ordea, zorionak, guttiz, baina garaiz, bere baitan hartu zuelako Euskaltzaindiak idazle hau. Eta bihoazkio eskerrak idea hori izan zuenari, Aita Zabala nik uste. Horregatik ere zordun zaio Euskal Herria jesuita langile honi.

Bai, zorionak Euskaltzaindiari, garaiz beregana Xalbador deitu zuelako. Guttiz, hori bai, baina garaiz, hil baino minutu batzuk, edo segundo batzuk lehenago, baina lehenago, jakin zuen urepeldar haundiak Euskaltzain izendatzen zutela. Haren emazteak bazekien lehenagotik ere, eta senarrak ere bazekien bere maiteak segereto bat bazuela egun hortarako, baina hiltzeko ordurarte ez zuen jakin zer zen.

Azken arnasak eman baino lehentxeago, senarrak bere segereto bat kontatu zion emazteari, eta honek berea senarrari. Beraz jakinda hil zen Euskaltzain izendatu zutela. Hargatik, guttiz bederen, garaiz ibili zen Euskaltzaindiari, zorionak. Ongi zinatua gelditu zen horrela, bertsolari paregabearen Omenaldia eta heriotzea batera ospatu zituen egun haundi hura: 1976ko hazilaren 7a.

Eta zer esan nik zueri orain, euskaltzain lagunoi, Xalbadorrez? Ba al ditaike zuen artean norbait, bere 56 urtetan heriotzak lurperatu digun bertsolari haundia nor zen eta zer zen ez dakikenik? Bazitaiken gaur hemen norbait nik baino hitz suharragoz Xalbadorren aipamena egin zezakeena, urepeldarra eraman digun lege berak egun hauetan bertan eman ez baligu: Gure Antonio Arrue Jauna, urepeldarraren miresle haundia eta bertsolarien ezagutzaile ona. Baina haien abotsak lurrak jan ditu eta guk esan beharko esatakoak, gu ere haiek bildu dituen lege berak biltzen gaituen arte.

Nere gisara askotan pentsatu dut egun hauetan, beste akademitan gertatzen ote den artzai bat elkartean sartzerik. Eta gertatzen ez bada, zer pentsatuko ote luketen guregatik, hamaika urtetan eskola utzi zuen artzai bat gurean sartu dugulako. Ez ote lukete beren baitan halamoduzko errukihitzen bat esango, honela: "Zer nauzu? Herri ttipietako akademiei ez dago gehiago eskatzerik?"

Hoiek dira nere buru darabilzkitan pentsamenduak. Eta nere baitan irri egiten dut, horrela pentsa dezaketen guzientzat burlazko irri bat. Bai bait dakit bestetan ere ez dagokela Xalbador baino idazle hobe askorik eta, baita ere badakit, haietan horrelakorik gertatzen ez bada, gure herriak daukan edo Xalbador sortarazteko izan duen indar harrigarri bat galdua daukatela. Ezer badata, hori baita gure Xalbador: Herriaren fruitu paregabe bat.

Eskola izeneko sasi-eskola hori hamaika urtetan utzi zuen harek non aurkitu zuen bere maila hortara irixteko beharrezko izan duen eskola? "Doahina eta lana", biak behar dira. Doahinaren jabe zela gure urepeldarra, ez dago dudatzerik. Baina, lana? Non landu zuen doahina?

Esan dezadan bidenabar, eliztar naizenez pozkarri bait zait, Elizak baduela zenbait meritu hortan. Eskola hamaika urtetan utzi zuen arren, "katiximari jarraiki nontzaion buru-

raino'' aitortzen digu. Eta horrekin batera, beste hau ere esaten du: ''Bidenabar erran dezadan gure jaun ertora euskalzale ona zela; katiximarekin batean entseatzen zen guri euskararen ere erakusterat''. Hor Xalbadorren eskola, euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko bederen. Eta erakusketa hori euskalzaletasunez egiten bada, horra hor ''haur euskalzalea'', urepeldarrak berak bere burua deitzen duen bezala.

Beraz badugu haurra bere hizkuntzaz baliatzeko gai dena. Eta bertsolaria, nork eskolatu behar du? Besterako ez zuen eskolarik eta hontarako hare guttiago. Zeinek pitz arazi, beraz, haren baitako ''pindar'' hura? Zeinek ''ufatu'', berak dioen bezala, ''artetan bakarrik atera dituen gar zirristak'' atera zitzan? Eskola hori herrian bakarrik izan zuen. Herria izan zuen bere ''errienta''. Baina herria esanarekin denak esaten baitira eta inor ez, aita ditzadan izenez ''pindar'' hura gehienik ufatu zutenak. Kantu euskaldunak ikasten hasi zenean, ''handik eta hemendik bildu kopia batzuetarik'' ikasten zituen, eta ''hauetarik gehienak, izeba Marianak eskuratzen zauzkitan'' esaten digu. Horra hor eskolatzailetarik bat.

Beste bat Pierre Bidondo zen. Aldudarra zen eta Urepeleko mendietan anaiaren ardiak zaintzen ibiltzen zen. ''Hau pertsuzale porrokatua zen eta bera kantu egile pullita'' dio Xalbadorrek. Gerra ihes hemendik ibilia zen nunbait eta hemengo bertsolarien berri hari ikasi zion bere lagunak eta haien bertsorik famatuenak ere bai. Beren arteko kontuetaz, hala dio urepeldarrak: ''Berak ere mahiz pertsulariak zituen mihian; bainan harek aipatzen ez bazituen, nik ekartzen nuen heietaz elea''. Hala, ''gizon horrekin elekatzen nintzan guziz, hautemaiten nuen nihaur pertsulari izaiteko tirria bizi bat''. Hor beste eskalatzaile bat, hor gure bertsolariaren egiazko ''errienta''.

Eta zer esan delako Joxe Tolosa zaldibiar hartaz, harek eraman bait zuen Urepeleko tabernetara bertsoká artzeko ohidura hura? Ez al zuen haren eskolak leherrazi lehen aldiz Xalbadorren ezpainetan nola-halako bertso hura, ''kasik nihaurrek nahi ez nuela'' urepeldarrak esango duen bezala? Har Xalbador bertsolariaren eskola.

Hoiek eman ''artari'' esker ez zen ''pindar hura ilaundu'', berak dion bezela. Beraz herriari gatzaizkio zordun Xalbador dela-ta. Horrek eman duen fruitua dugu. Indar horrek irau-

ten duen bitartean ez du gure kulturarik inperialisten erasoak zapalduko eta berriz ere izango ditu Euskaltzaindiak beregana deitzeko moduko artzaiak.

Joxe Mari Aranalde

PIERRE EYHERAMENDY (1891 - 1975)

Pierre Eyheramendy Maulen sortu zen 1891-eko abendoaren 28-ean. Sort-herrian egin zituen bere lehen eta bigarren mailetako ikasgoak. Baionako apezgaitegian ondarra eskolaturik, 1920-eko otsailaren 28-an apeztua izan zen.

Alduderat izendatu zuten behin, 1920-eko martxuaren lehenean; gero Bidarrairat 1924-eko uztailaren 15-ean.

Urte hetan Baionako "Musee Basque" erakustokian eman zituen euskara-erakuspen batzu, eta ager-arazi zuen liburuxka bat: *Methode pratique pour aprendre le basque*, Paris, Maisonneuve, 1929 (142 p.p. 19, 5 cms.).

Ikas-bide hori euskararen ikasteko lehen mailakoa zen.

Bertze bi liburu egin zituen eta polikopiaturik baliatzen zituen, korreoz asko urtez eman zuen erakaskuntzako. Mail goragotakoak ziren.

1929-ko uztailaren 26-an Donazaharreko bikario eman zuten, hor egon baitzen hamabi urte.

1941-eko abuztuaren 30-ean Mugerreko laborari umetxurxtegian ezarri zuten arima-zain 1953-an *gure herria*-n lantxo bat eman zuen erdaraz: "Enquete geographique et demographique sur Saint-Jean-le-Vieur" XXV, pp. 328-337.

Euskaraz ez dugu uste behin ere deus ere ager-arazi duen.

1959-an Biarnurat joan zen Jurancun-eko bekario bezala.

1968-an utzi zuen apez-lana eta hanbo-ko "Arditeya" deitu apez-xahartegian sartu.

Hor hil da 1976-eko abenduaren 25-ean.

Euskalzain laguntzale zen, Xubero-ko urgazletarik bat.

P. Lafitte